

BALEIKE GUKA



IRENE HERNANDEZ

SAN TELMOREN APARRETAN

**Festak
aske bizi!**
Gozatu eta
gozarazi!



Festez
gozatu, eta
arduraz
kontsumitu.

Zumaiako
Udala



ZUMAI A
BIZITZEKO
DA



Txupinazoa, beste aldetik

Batzuek festaz gozatu ahal izateko, beste batzuek lan egin behar izaten dute. Suziria jaurtitzeko uneak zumaia asko elkartzen ditu, eta hainbatek lan egin behar izaten dute dena ondo atera dadin: bertso eskola, musika eskola eta Itxas Gain elkarteak dira horietako batzuk.



Z

apia, kasaka eta arropa urdinak jantzi eta marea urdina San Telmo ermitara bideratuko da apirilaren 15eko goizean. Festen baitako hainbat ekitaldi dagoeneko igarota izango diren arren, jaiak orduan egingo du ofizialki eztanda, eta horretarako prest izango dira zumaia arrak. Baleikek osatutako gehigarri honen azalean ageri den bezala, zaparradan aterako dira suziariak 12:00etan, eta Zumaia festa giroan murgilduko da.

Hala ere, batzuek festaz gozatu ahal izateko, beste batzuek lan egin behar izaten dute. Jaiaren beste aldea da, hain zuzen ere, lanean aritzen diren horien. Txu-

pinazoaren uneak, adibidez, zumaia asko elkartzen ditu, baina herritar asko lanean aritzen dira jaien hasierako momentu hori beti bezain alaia eta ederra izan dadin: bertso eskolako eta musika eskolako kideak eta Itxas Gain elkarteak ordezkariek dira, besteak beste, horietako batzuk.

Hamaiketakoa

Festei hasiera ematen dien suziaria jaurti ondoren, San Telmo ermita inguruan bildutako herritarrak kalejiran jaitsiko dira izen bereko kalera, musika eskolako trikitilarien laguntzarekin. Hara iristean, Itxas Gain elkarteak dena prestatuta izango dute festa gosez dauden herritar horien sabelak betetzeko: 25 kilo haragi, 50 kilo



Gora San Telmo!



txopa

GASTROLEKUA

Erreserbak: 943 574 098 | 644 971 228



txorizo, salda egiteko produktuak... «Une horretarako, gauza asko izaten dira erosteko eta egiteko. Edari aukera ere eskaintzen dugu, baina egun horretan txakolina izan ohi da Zumaiako erregina. Ura ere izaten dugu, baina ez digute eskatzen», dio barrez Ligorio Urruzunok.

2004aren inguruan hasi ziren Itxas Gain elkarteko kideak hamaiketako eskaintzen. Poliki-poliki hasi ziren, garai hartan ez baitzen jende gehiegi elkartzen. Urteak aurrera joan diren heinean, ordea, gero eta jende gehiago hasi da hamaiketakora hurbiltzen. Eta zenbat eta jende gehiago, are lan gehiago eskatzen die elkarteko kideei prestaketak. Dena den, Itxas Gaineko kideak ondo antolatzen dira, eta lanak ondo banatzen dituzte, hamaiketakoak arrakasta izan dezan. Hala esan du Urruzunok: «Taldea ona sortu dugu. Ohitura hartuta dugu jada, bakoitzak bere zeregina du, eta denon artean lortzen dugu otordua aurrera eramatea».

Kalean eskaintzen dute hamaiketako, eta horrek begirada zerrura bideratzera behartzen ditu Urruzuno eta lagunak. Izan ere, euriak hitzordua zapuzteko aukera erreala da. Dena den, orain arte «zortea» izan dutela esan du: «Oso gutxitan egin izan du euria. Hala ere, gogoratzen dut urte batean beheko arkupean egin behar izan genuela hamaiketako».

Bi urtean behin aldatzen da hamaiketako prestatzeaz arduratzen den taldea; izan ere, Itxas Gain elkarteak ere bi urtez behin aldatzen du zuzendaritza. «Urtero antzekoa izaten da hamaiketako, eta zuzendaritza batekoek besteei esaten diete zer eta non erosi behar duten. Zentzu horretan, ez da arazorik izaten. Gainera, 25-30 pertsonako taldea sortzen dugu hamaiketako prestatzeko, eta bakoitza bere zereginetan aritzen gara: garbiketan, hamaiketako jasotzen, prestaketan, banaketan...». Hori bai, elkarteko kideek beraientzat ere gordetzen dute hamaiketakoaren

zati bat, eta ekitaldia amaitutakoa, dena garbitu eta jasotakoan, beraiek betetzen dituzte sabelak. «Lana bakarrik ez da egin behar; gozatu ere egin behar da, zer gero!», esan du Urruzunok.

Ondo pasatzen duten arren, hamaiketako festen egitarautik kentzeko gogoa ere izan dutela onartu du. «Lan asko egitea eskatzen du hamaiketako prestatzek, eta orain, gainera, gastu denak eta justifikatu behar izaten ditugu. Ulertzen dugu hala egin behar dela, baina, herriari laguntzen ari gara, festak antolatzen borondatez... Halakoek zaildu egiten dute guztia», kexatu da.

Hala ere, lan hori hartzeak eta herritarrentzat hamaiketako prestatzek alde onak ere badietela esan du. Hark adierazi duenez, erromesak edota beharra duten herritarrak gerturatu izan dira hamaiketakora. Haien sabelak ere ondo betetzen saiatzen dira Itxas Gainekoak. «Herriarrek etxean edo kalean bazkalduko dute, baina horiek, horiek ez dute horretarako aukerarik».

Musikaz blai

Festa guztietan bezalatsu, musikak nagusitasuna izango du santelmoetan. Txupinazoa botako duten eguerdian ere izango du protagonismoa musikak; izan

«Zortea izan dugu; oso gutxitan egin digu euria. Gogoratzen dut behin beheko arkupera mugitu behar izan genuela»

«Oso gustura gaude, aurtan bat-batean gorakada izan dugulako ikasle txikiak kopuruan»

ere, herriko bertso eskolako eta musika eskolako euskal dantzen taldeko ikasleek parte hartuko dute ekitaldian. Hamaiketako izango den kale horretan bertan,

bertso batzuk kantatuko dituzte bertso eskolako gaztetxoek eta ez hain gaztetxoek. Ikasturte hasieratik doinu desberdinak lantzen aritu dira horiek, eta santelmoak gerturatzen hastearekin, bertsoak edo koplak sortzen aritu dira. «Bertso eskolako saioetan prestatzen dituzte koplak, irakasleak denak entzun eta zuzentzen ditu beharra baldin badago», eta eguna iristerako buruz ikasita izaten dituzte ikasleek horiek». Santelmoen inguruko gaiak izaten dituzte kanturako aitzakia: festen itzulera, barrakak, jaietako ekintzak...

Zenbait urtetan lau ikasle eskaini izan dute bertso emanaldia, beste batzuetan zortzik ere bai, eta aurtan, hamalau lagun inguru izango dira bertsoetan. «Oso gustura gaude, ikasle txikiak kopuruan hazi egin delako. Aurreko urteetan hiru ikasleko taldeak izan ditugu, eta aurtan, ezustean, ume askok eman dute izena. Ederra izan da», esan du Irati Arakistain bertso eskolako irakasleak.

Ondartxon, aldiz, dantzari txikiak ikuskizuna izango da. Asteak daramatzate emanaldia prestatzen, eta ez dira faltako aurrerakua, arrantzale dantza, fandangoa, arin-arina eta Pirritx eta Porrotxen *Telmo Deun* abestia. «Urte urte, hiruzpalau dantza aldatzen saiatzen gara, herriarrei emanaldi desberdina eskaintzeko», azaldu du Alain Maya irakasleak.

Ehundik gora umeek parte hartuko dute aurtengo ikuskizunean; 102 haurrek, zehazki. «Umeentzat polita da emanaldian parte hartzea. Izan ere, kalean eskaintzen dugu, eta haurrek ilusioa izaten dute. Gustura egiten dugu emanaldia».

Zumaian euskal dantzak osasuntsu daudela esan du euskal dantzen irakasleak: «Ikusi besterik ez dago: santelmoetako saioan ehun umetik gora izango dira, musika eskolan 130 ikasle daude... Egia esan, gustura gaude».



**Muniosoro
erretegia**

Eguneko menua eta asteburukoa

Gora santelmoak!

Oikia 54, Zumaia • 943-14 78 91






☎ 679 10 31 67
 @Juan de Zigarán, 1
 Zumaia
 @aitamarijattetxea@gmail.com
 f i

Terraza bikaina eta jantoki zabala
GORA SANTELMOAK!



GORA SANTELMOAK!
 Eguneko menua eta terraza ederra
Victoriano Arrate z/g



Ortega y Gasset kalea 4
 Zumaia
 943-57 46 51
 amamataberna@gmail.com
 f

Pintxo bereziak eta kafe bikaina
Gora santelmoak!



ATARI
 T A B E R N A

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa
GORA SANTELMOAK!!
 Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bikos & café
 BALIOAK DASTATZEN
 DEGUSTANDO VALORES

GORA SANTELMOAK! ONDO PASA FESTAK!
 ONDARTXO PLAZA, 3
 Tel. 943-38 14 14 • www.bikosycafe.com • bikosycafe@gmail.com

Zergatik etortzen zara santelmoetan Zumaia?

Elena Yeregui



Elena Yeregui zumaia gazteak urteak igaro ditu Tarragonan (Katalunia) bizitzen, baina gaur egun, urrunago bizi da: Qatarren, hain zuzen. Tarragonatik urtero

etortzen zen Zumaia San Telmo jaiak ospatzera. Festetako bi aste-buruetatik bat aprobetxatzen zuen Yereguik horretarako: «Ospitalean guardiak egin behar iza-

ten ditut, eta, beraz, ohikoa da Aste Santuan lan egin behar izatea. Horregatik, guardien arabera erabakitzen nuen Zumaia zein asteburutan joan». Aurten, ordea, «pena handiz» bada ere, huts egin beharko du Qatarren bizi den zumaiaarak.

Santelmoak ez ezik, Euskal Jaia ere gogoko du zumaiaarak, eta bi festetako bat hautatzea «zaila» zaion arren, santelmoe-tako kaleko giroa nabarmendu du: «Zumaia askorentzat beza-la, urteko egunik berezienak dira niretzat». Izan ere, festak lagunartean igarotzea eta gozatzea du gustuko: «Festak lagunartean bizitzen ditut, eta hori da gehien gustatzen zaidana. Kuadrillako kideez gain, urtean zehar ikusten ez dudan jendearekin elkartzeko aukera izaten dut santelmoe-tan».

Xabier Elizalde



Donostian bizi da Xabier Elizalde, eta urtero-urtero etortzen da Zu-

maia santelmoetara. Herriko jaietan hutsik egiten ez duen horietakoa da. Zehazki, bi egunetan joaten da sorterrira; hala azaldu du: «Lehen asteburuko larunbatean eta astelehenean, hau da, San Telmo egunean». Azken hori da, hain zuzen ere, Elizalderentzat jaietako egunik garrantzitsuenak; izan ere, familiako bazkaria egiten dute.

San Telmo festetatik gehien herrian sortzen den giroa du gus-

tatzen zaio Elizalderi: «Kalean giro bikaina izaten da, eta guk etxean familiakoekin batera sortzen dugun giroa ere atsegin dut. Kuadrillakoak ere asko biltzen gara jai egun horietan, eta oso ondo pasatzen dugu; ederra izaten da».

«Herriko festak» bezala definitu ditu Elizaldek santelmoak, sanpedroekin eta beste festekin alderatuta «desberdinak» direlako jaiak.

Juan Mari Azpillaga



Hondarribian bizi da Juan Mari Azpillaga, eta Zumaia-ekin duen lotura estua tarteko, etxera itzultzen da santelmoetan. «Zumaian izaten naiz lehendabiziko asteburuan, baina bigarrenetan zailagoa egiten zait hara joatea. Dena den, ahal dudan guztietan, bigarren asteburuan ere joaten naiz Zumaia».

Jaiez galdetuta, lagunekin elkartzea eta egun horietan herrian sortzen den giroa aipatu ditu Azpillagak. «Kuadrillakoekin bazkaria egiten dut, eta hori izaten da niretzat ekintzarik garrantzitsuenetakoa. Jende asko elkartzen gara, kanpoan bizi garenok saiatzen gara joaten, eta lagunarteko giro horrekin eta herrian izaten

denarekin, pozik ibiltzen gara, gustura egoten gara. Zumaia-ko

festarik onenak dira santelmoak, dudarik gabe!».



Joseba Egaña



Joseba Egaña Zumaiako San Telmo kalekoa da, eta nola ez, santelmoak dira harentzat Zumaiako festa ederrenak. «Oraindik gogoa daukat gaztetan nola egoten nintzen festen zain; pentsa, santelmoekin ametsetan egindakoa ere banaiz. San Telmo kalekoa izanik, jaiak bizitzeko moduari

erreparatu dio hark. «Beti izan dira jai bereziak niretzat. Orain 50 urte ditut, eta beste modu batera bizi ditut, baina santelmoek bereziak izaten jarraitzen dute niretzat».

San Telmo kaletik Gasteizera egin zuen salto Egañak duela urte batzuk, baina, hala ere, urtero-

urtero etortzen da herrira festak ospatzera. «Gertu samar daude Zumaia eta Gasteiz, eta ez dut inoiz hutsik egin izan. Azken urteetan zailagoa egin izan zait jaietako bigarren asteburuan Zumaiara joatea, baina lehen asteburuan beti izaten naiz herrian».

Festetatik zer duen gogokoen galdetuta, «sentimendua» hitza ateratzen da: «Badu zerbait berezia herritar guztiok modu berean jantzita ibiltzeak. Hori asko gustatzen zait, sentimendu bera dugula adierazten baitu. Bestalde, asko gustatzen zait kuadrillakoe-kin eta familiako kideekin elkartzea, bazkariak, poteoan ibiltzea... Askoz gehiago ez dut behar ondo pasatzeko. Gainera, urteko lehen festetakoak izaten dira; hau da, udan jaiak han eta hemen izaten dira, baina Aste Santuan ez dut beste festarik ezagutzen. Horregatik, jendeak San Telmo jaiak gogoz hartzen dituela esango nuke. Kanpotik ere jende ugari joan ohi da Zumaiara».

«Beti izan dira jai bereziak niretzat. Orain 50 urte ditut, eta beste modu batera bizi ditut, baina bereziak dira»

Paula Esnal



Paula Esnalek Londresen du bizitokia. Normalean jaietako lehen asteburuan etorri izan da santelmoetara, Zumaiara, bide batez Aste Santuko jaiagunak aprobetxatuta. «Aste Santuarekin lotu eta San Telmo eguna familiarekin, amamaren etxean, ospatzeko aprobetxatzen nuen bidaia;

izan ere, hori egun handia izaten da gure etxean».

Lehen Zumaiara «sarriago» etorri ohi zela aitortu du Esnalek; izan ere, badira urte batzuk santelmoetan herrira itzuli ez dela: «Orain, gainera, ama naiz, eta, beraz, logistika aldetik zailagoa zait Zumaiara joatea. Umearekin

opor egunak nola eta non pasatu ondo pentsatu behar izaten dugu. Hala ere, semeari San Telmo festak erakusteko irrikiaz nago, niretzako bereziak dira eta».

Txikitatik, jaietako askotariko ekintzetan parte hartu izan du Esnalek: umeen danborradan, danborradako karrozetan, prozesioan, musika bandan... Adinean aurrera egin ahala, baina, barraken, kontzertuen, herri bazkariaren edota txosnen zain egoten zen. «Kalean izugarritzko giroa izaten da: txarangak, kofradiako giroa, jendea irribarretsu festan murgilduta...»

Santelmoek badute zerbait berezia Esnalentzat. Jaiak itsasoarekin duten lotura aipatu du: «Egun, Zumaiako festarik famatuena direla esango nuke. Guztiok arrantzalez jantzita ateratzen gara kalera, eta itsasoarekin duten loturak egiten ditu berezi jaiak. Oroitzapen zoragarriak ditut, ez dago santelmoen parekorik munduan!».

«Kalean izugarritzko giroa izaten da: txarangak, kofradiako giroa, jendea irribarretsu festan...»

BITARTE
erretegia
eguneko menua

Gora santelmoak!

Axular 38 • Zumaia (Gipuzkoa)
tel.: 943-86 18 52

ferreteria Galdona S.A.

burdindegia



Gora santelmoak!

Lanerako arropak, epiak...

JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA • Pab. A6.1, 2-5 mod. • Tel.: 943-86 11 17

ITZURUN

Pintxo bereziak eta terraza bikaina

GORA SANTELMOAK!

Itzurun zuhaitzbidea 1 • 943-86 26 59

Kukitxa
ekodenda

Gora santelmoak!

Angeles sorazu 2 • 688 75 93 81



TABERNA

Gora santelmoak!

Eguneko menua eta asteburukoa

Eusebio Gurrutxaga plaza
943-04 86 93



LABARRA TABERNA

ZUMAIA

est.2016

Pintxo bereziak eta terraza bikaina

**GORA
SANTELMOAK!**

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

MAIAUR

ZUMAIA

Gosari bereziak eta izozkiak

Gora santelmoak!

Julio Beobide, 2 • Tel. 943-862 269



MANDALA
Papertegia & diseinu grafikoa

www.mandalapapertegia.com

**NARRONDO
TABERNA**

Pintxoak eta kafea



Gora santelmoak!

Narrondo 12 • 943-86 24 90

Sartaia
Janaridenda-okindegia

Gora santelmoak!!

Txomin Agirre kaia z/g • 943-86 01 71



Musikarik ez duen herriak zorionik ez du

Nonahi eta une oro, akorde hotsak izango dira Zumaiako kaleetan eta bazterretan San Telmo festek irauten duten bitartean. Udal Musika Bandako kideak soinu horien atzean izango dira, kasu askotan.

Kantzen ez duenak zorionik ez du». Hala dio Pirritx eta Porrotx pailazoen Bizitza kantu bat da abestiak. Eta hori horrela izanik, Pazko As-tean hasita, ez da Zumaia baino herri zoriontsurik izango ingu-

ruetan. Izan ere, santelmoek irauten duten bitartean, nonahi eta une oro akorde hotsak izango dira Zumaian. Udal Musika Bandako kideak soinu horien atzean izango dira, askotan.

Haurren danborrada, heldue-na, prozesioa... Hamaika hitzordu izango dituzte bandako musikariek, eta dagoeneko hasiak dira

ekitaldi horiek prestatzen. Badira aste batzuk entseguetan murgilduta dabiltzala: «Badugu zer egi-na!», dio Udal Musika Bandako zuzendari Joxe Mari Azkuek.

Gogorrena eta ederrena
Festetako lehen igandean, apirilaren 16an, danborraden eguna izango da musika bandarentzat.



Danbor festaz pluralean hitz egin du Azkue; izan ere, goizean umeen danborrada izango dute, eta gauean, aldiz, helduena. Egunik bereziena, eta aldi berean, gogorrena izango da bandakideentzat. Hala azpimarratu du zuzendariak: «Igande goizean hasten gara martxan, eta gutxi gorabehera, goizaldeko 01:00etara arte jarraitzen dugu jotzen. Gainera, hurrengo egunean, 10:00etarako prozesioan egon behar izaten dugu».

Lehen asteburu horretan ez dute, beraz, festez gozatzeko aukera handirik izaten musikariek. «Beti zera esaten dugu: 'Eskerrak repetizioak dituzten santelmoek'. Izan ere, bigarren asteburuan jaez gozatu ahal izaten dugu. Lehen asteburua oso gogorra egiten da, egun guztia kalean igarotzen dugu, eta aurretik parranda egin ez gero, ezingo genuke erritmo horretan aritu», azaldu du.

Helduen danborrada gauez eta parranda giroan egiten da Zumaian. Lana zailtasunez egiteko osagai guztiak ditu ekitaldiak, baina gustuko lekuan aldaparik ez. Iritzi horretakoa da Azkue: «16 urte nituenetik atera izan naiz bandarekin danborradan; ez dut inoiz hutsik egin, iazko ediziora arte. Iaz danborrada kanpotik ikusteko aukera izan nuen lehendabizikoz, eta gogoan dut zer pentsatu nuen: 'Barruan egon nahi dut!', esan nion neure buruari. Danborradaren barruan zaudenean bizitzen duzunak ez du beste ezerekin zerikusirik. Jendea parrandan izaten da, baina danborrada barrutik ikustea

«Danborradaren barruan zaudenean bizitzen duzunak ez du beste ezerekin zerikusirik»

izugarria da; esperientzia hori ez nuke ezergatik aldatuko».

Musika arnastu

Musika banda, eta, musika orokorrean, osasun onean daude Zumaian, eta hain zuzen, santelmoen oinarrietako bat da musika: kontzertuak, emanaldiak edota ikuskizunak izan, musika doinuak entzuteko hamaika aukera izaten da herriko jaietan. «Zumaian musika arnasten dela esan dezakegu. Edozein festatan txaranga bat kalera ateratzen bada, herria alaitu egiten da, eta jendeak eskatzen du halako ekitaldiak antolatzea. Agian ni musikaria naizelako izango da, baina herrian musikarekiko zaletasun handia dagoela iruditzen zait. Jendeak ondo pasatzeko gakoa da musika, eta festa ez genuke ulertuko musikarik gabe», adierazi du Zumaia Musika Bandako zuzendariak.

Taberna

Gora santelmoak! Eguneko menua eta giro jatorra

Erribera kalea • 943-86 19 73

Taberna

Pintxoak eta giro jatorra

GORA SANTELMOAK!

Bidasoa kalea z/g • 943-86 22 25

Xiru

Ondartxo plaza 3
943-86 17 05
747 48 35 52

Argazki eta opari denda

Gora santelmoak!

taberna

Pintxo bereziak eta terraza bikaina

GORA SANTELMOAK!

Ondartxo plaza 4, beheka B1 | 623 27 21 91

ASESORIA ZUMAI, S.L.
Errenta aitorpena, aholkularitza...

Plaza Amaia 15 bajo
20750 Zumaia
Telf.: 943-86 26 24
Fax: 943-86 27 94
e-mail: info@zumai.com

GORA SANTELMOAK!



Jose Luis Doval

Apirilaren 15eko gauerdian izango da Kofradiako banderaren igoera, eta Jose Luis Doval izango da aurtengo protagonista.

Jose Luis Doval 15 urte zituela hasi zen itsasoaren mundua ezagutzen, eta 40 urtez itsasoa izan zuen ogibide zumaiaarak. Erretiroa hartu ondoren ezagutu zituen Zumaiaiko San Telmo jaiak, eta aurten, ia bizitza osoa itsasoan eman ondoren, San Telmo festetako bandera igoko du. Oraindik urduritasunik sentitzen ez duen arren, bandera igoko duelako «oso hunkituta» dagoela adierazi du. Hark azaldu duenez, unea iritsitakoan, zendutako gertukoak izango ditu gogoan.




Casa BASUSTA

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11



Etkez-etxeko
zerbitzua



Sartu gure **online dendara**
eta egin zure erosketak
etxetik

www.floristeriabasusta.com



40 urte baino gehiagoko
esperientzia sektorean



Landareak
Dekorazioa eta opariak
Hileta zerbitzua
Lore-sortak
Ezkontzak





«Gehien gustatzen zaiguna kaleko giroa da; festaren parte sentitzen zara»

MAITE MANZISIDOR ETA ARAIKA ARRONA •
Zumaiaiko helduen danborradako zuzendariak

Barrikak nahiz danborrak ozen entzungo dira Zumaiaiko kaleetan apirilaren 16ko gauean. Azken urteetako partaidetza handienarekin egingo dute danborrada; 160 danbor jotzaile inguruk parte hartuko dute. Bi emakume ariko dira zuzendari lanetan: Maite Manzisidor (Zumaia, 1992) eta Araika Arrona (Zumaia, 1983).



mara 
TELEFONIA - INTERNET

Erribera kalea 6 Zumaia  669748083
943143097 telefonია@ekinsl.com

**Eskualdeko
operatzailea**
mara.eus 

ekin
elektrizitatea, s.l.

Zuntza 300

29,90 €

 Barne

Aurreztu Mara rekin

Zuntza 300

+



50 GB

36,90 €

 Barne

Zuntza 300

+



50 GB

40,90 €

 Barne

Mugikorrak: Dei Mugagabeak. Fijoa: 60 Min mugikorretara eta mugagabeak finkoetara Bez Barne. Betirako prezioa



Noiztik aritzen zarete danborradako zuzendari lanetan?

MAITE MANZISIDOR: Nik 2011. urtean zuzendu nuen lehendabizikoz. Bost urtez jarraian irten nintzen zuzendari, eta ondoren, utzi egin nuen bizpahiru urtez. Berriro hasi nintzen geroago.

ARAIKA ARRONA: Ni, berriz, orain dela gutxi hasi naiz, pandemia aurretik. Aurtengoa hirugarren urtea dudala uste dut.

Nolakoa izan zen zuzendari izan arteko prozesua?

A.A.: Ez dut prozesurik bizi izan. Garai batean, danborrada tradizionalagoa egiten zen Zumaian, eta haurren danborradako zuzendaria helduenera igarotzeko ohitura zegoen. Bestela, zuzentzen ondo moldatzen zen norbait hautatzen zuten. Lehen, gainera, zuzendaria arduratzen zen santelmoetako danborrada antolatzeaz, eta pixkana, danborrada beheraka egiten hasi zen. Izan ere, ardura guztia pertsona baten gain izaten zen, eta jendea danborrada alde batera uzten hasi zen. Danborrada desagertu egingo zela zirudienean sartu ginen gu taldean. Ez ginen zuzendari gisa hasi, ordea, antolatzaile bezala baizik.

M.M.: Zu taldera batu zinenean, ni zuzendaria nintzen dagoeneko. Danborradara batu nintzenean, bazen beste zuzendari bat; danborrak eta barrikak zuzentzen zituen hark, eta barrikak zuzentzeko beste norbait behar zuen. Gerora, utzi egin zuen zuzendari postua hark, eta orduan hasi nintzen ni danborrak zuzentzen. 2013an hasi ginen talde bezala lanean.

A.A.: Bost lagunek osatzen dugu boluntarioen taldea; ez gara elkarrekin bat. Kuriosoa da, baina inongo loturarik ez genuen bost pertsona bildu ginen antolaketa-rako. Dena den, badaude laguntza emateko prest dauden beste herritar batzuk ere.

Gaur egungo danborrada zuen esku dago, beraz.

A.A.: Bai, gu bion eta beste hiru pertsonaren esku.

M.M.: Eskerrak laguntza eskatzen dugun bakoitzean badagoen horretarako prest dagoen jendea: danborradan irteten urteak daromatzen jendea, adibidez.

A.A.: Danborrada nahiko herrikoia da orokorrean, hau da, ez dago elkarrekin edo elkarrekin gastronomikoki atzean. Herriko jendea gara, danborradarekiko konpromisoa hartu dugun herritarak, eta horri esker irten da danborrada aurrera. Batzuk danborradan irteten dira, eta listo; beste batzuek, berriz, pixka bat laguntzen dute. Denetarik dago.

Danborradak lan asko egitea eskatzen al du aurretik?

M.M.: Lan asko baino, bakoitzaren egoera pertsonala aipatuko nuke; izan ere, horrek asko eragiten du egitekoetan. Baserritarra naiz, eta nik daukadan prestutasuna eta beste taldekideena desberdina da; izan ere, ordutegirik gabeko lana da nirea, baita beste taldekide batena ere. Gainontzeko hiru lagunak, ordea, beti daukete lanerako prest.

A.A.: Ardura batzuk daude betetzeko: entseguetarako lokala behar da, udalari eskatu behar zaio, materialaren kontaketa egin behar da, materiala prestatu... Egin beharreko gauzak dira, norbaitek egin egin behar ditu, hala egin ezean ez da eta ezer eginda izango data iristean. Lana eskatzen du, baina ondo moldatzen gara boston artean.

M.M.: Oso ondo moldatzen gara gure artean, ez gara elkarren zereginetan sartzen. Familia bat bezala ikusten dut taldea, elkarrekin konfiantza daukagu.

A.A.: Batek zerbait behar badu, beste batek laguntzen dio; adibidez, gutako batek ezin badu entsegura joan, beste bat joango da. Ahal den neurrian moldatzen gara, baina, lana eskatzen du. Dena den, aurtengoa inoiz ezagutu dudana danborradarik parte hartzaileena izango da.

ABAILA

www.abaila.eus

- INTERNET
- TELEFONIA
- MUGIKORRAK
- TELEKOMUNIKAZIOAK

Gora santelmoak!

ZUMAI AKOZUNTZA



943-56 92 96

✉ info@abaila.eus

🏠 Zunbillo 2, Zumaia



Herritar ugarik parte hartuko dute, beraz. Zer moduz joan da izen ematea?

A.A.: 160 danbor jotzaile inguru izango gara, eta horiez gain, bandako eta txarangako kideak ere izango dira.

M.M.: Izena emateko aukera zabaldu eta lehen asteburuan itxi behar izan genituen zerrendak. Itxaron zerrendak ere badaude.

A.A.: Iaz baino 35 pertsona gehiago izango gara aurtengo danborradan.

M.M.: 2013ko denborradan, adibidez, zehatz-mehatz ez dakit, baina lau pertsonako sei ilara ere ez genituen osatu. Lehen gazteei zuzendutako danborrada izaten zela zirudien, baina 18 urtetik gorakoentzako da. Gainera, gurasoak animatzeko saiakera berezia egin genuen.

A.A.: Belaunaldi nahasketa gertatu da, lehen gertatzen ez zena.

M.M.: Aldaketa batzuk ere egin genituen: pieza batzuk kendu, beste batzuk gehitu, dantzak sartu...

A.A.: Erabaki batzuk hartu ziren, eta ondorioz, pertsona batzuek danborrada utzi zuten. Aipatzekoa da pertsona horiek ez zutela danborradaren antolakuntzan parte hartu nahi. Ardura hartuz gero, erabakiak hartu behar izaten dira, eta argi dago erabakiak guztien gustukoak ez direla izango. Guk hartu genuen ardura, eta danborrada dinamikoagoa, festa girokoa, egitea erabaki genuen.

M.M.: Ez da batukada bat, baina danborradak hartzen du estilo hori. Era berean, oso zorrotzak gara, eta danborra ondo jo behar izaten dugu. Inguruko herriekin alderatuz gero, entsegu asko egin ditugu, gainera: ondo jo behar da, erritmoa mantendu, denok batera aritu... Parte hartzaileek gutxieneko entsegu batzuetan parte hartu behar izaten dute; hala egin ezean, danborradan irteteko aukera galtzen dute.

A.A.: Jende berri ugari izaten da danborradan urtero, eta beraz, hutsetik hasten diren danbor jotzaileak izaten dira. Horregatik, hamahiru entsegu egiten ditugu, eta horietatik, gutxienez, entsegu erdietara baino bat gehiagora joan behar izaten dute partaideek.

Entseguetan murgilduta zaudete. Zer moduz doaz?

M.M.: Ondo doaz. Errespetua ematen du zuzentzeak, jende ugari eman duelako aurtengo parte hartzeko izena. Aurtengo bideoak ere prestatu ditugu entseguetara joan ezin dutenei bidaltzeko. **Batek danborrak eta besteak**

barrikak zuzentzen dituzue. Gustuko duzue zuen egitekoa?

M.M.: Barrika behin bakarrik jo dut nik danborradan, 7 edo 8 urte nituela, eta danborra jotzeko jende gehiegi zegoelako. Gero, 19 urte nituela, barrika taldea zuzendu nuen, baina hori izan da barriekin izan dudana esperientzia guztia. Danborzalea naiz oso, eta pena bakarra da santelmoetan arrada gutxi egiten ditugula.

A.A.: Nik, berriz, nahiago dut barrika. Hala ere, zuzendari lanetan aritzea baino nahiago dut barrika jotzen ateratzea. Baina, tira, egotera horrelakoxea zen; norbait jarri behar zen horretan, inork edo inork gutxi nahi izaten duelako zuzendari izatea. Izan ere, altueran egoten zara, denak begira direla, taldearen ordena mantendu behar duzu... Ez da erraza izaten.

Nola antolatzen duzue eguna? Urduritasuna izaten al duzue?

A.A.: Goizean umeen danborrada izaten da, 12.00etan, eta guk ere parte hartzen dugu. Umeen danborradakoek laguntza behar izaten dute, eta gure taldeko bat horren antolakuntzan ere aritzen denez, laguntzera joaten gara.

«Beti esaten dut nire santelmoak danborrada amaitzean hasten direla. Aurretik kezkatuta egoten naiz»

«Izena emateko aukera zabaldu eta lehen asteburuan itxi behar izan genituen zerrendak»

M.M.: Umetatik hartu izan dut parte danborradan: danborra jotzen, karrozan... Egun, berriz, traktorea eramaten dugu etxetik.

A.A.: Modu batera edo bestera, egun guztia horretan pasatzen dugu, okupatuta. Gainera, material guztia prest uzten dugu ludotekan, handik hasten baita danborrada. Hurrengo ostegunean, apirilaren 13an, bukatuko ditugu entseguak, eta ostiralean dena prestatuko dugu. Danborradaren egunean, igandeko 19:00etan, soinu proba egingo dugu, megafonia ondo dagoela berresteko.

M.M.: Ibilbidea bandarekin egiten dugu, baina San Telmo kalean eta Kofradia aurrean megafonia erabiltzen dugu. Izan ere, bandarekin soilik ez litzateke musika behar adina ondo entzungo.

A.A.: 20:00etan afaltzera joaten gara, eta 22:00etarako ludotekan izaten gara. Aurtengo, gainera, 22:15ean hasiko da danborrada.

Danborradatik zer duzue gustuko?

M.M.: Nik hiru une ditut gustuko: danborradari hasiera ematen dion txilibitua jotzen dudana; San Telmo kaleko momentua, akustika berezia izaten delako eta oiloipurdia jartzen zaidalako; eta Kofradia aurrekoa, bandera igotzen den momentua. Zirrara handiena, ordea, San Telmo kalean sentitzen dut nik, eta hori ez naizela kale horretakoa.

A.A.: San Telmo kaleko jendearentzat, ordea, oso berezia da une hori. *San Telmo martxa*, gainera, kale horretan jotzen dugu lehen aldiz. Isiltasun handia egoten da une horretan, kalea oso estua da, aldapan dago, eta egia esan, zirrara handiko momentua izan ohi da. Hala ere, gehien gustatzen zaiguna kaleko giroa dela esango nuke; festaren parte sentitzen zara.

San Telmo martxa aipatu duzue. Hori al da abesti bereziena?

M.M.: Exijentzia handiena eskatzen duen abestietako bat da, *Gora Zumaia* kantarekin batera. Bi horiek ondo jo behar dira.

A.A.: Bai, eta aurtengo hori da, agian, entseguetan gehien kostatzen ari zaiguna: ondo jotzea. Izan ere, jende asko ari gara elkartzeko. Kanta denak ditut gogoko. Hala, ber, kendu izan ditugu abesti batzuk erreperitorioetik.

M.M.: Zerrendatik kendu genituen abestietako batzuk ez ziren Zumaia-koak, beste batzuk ez zitzaizkigun gustatzen... Hala ere, horiek kendu ahal izateko iritzia eskatzen dugu, eta egia esan, inoiz ez dugu arazorik eduki. Aurtengo, adibidez, beste kanta bat kendu dugu, jotzeko oso nahasgarria zelako.

Danborrada alde batera lagata, nola ospatzen dituzue festak?

A.A.: Beti esaten dut nire santelmoak danborrada amaitzean hasten direla. Izan ere, danborrada aurretik kezkatuta egoten naiz beti, gauza asko izaten ditut buuruan, gauza asko egiteko...

M.M.: Duela urte gutxi hasi ginen, adibidez, bandera jaitsieran ere parte hartzen. Hamar barrika jotzaile eta bost danbor jotzaile ateratzen gara, zuzendaririk gabe.

A.A.: Txaranga bat ateratzen da urtero banderaren jaitsieran, eta ekitaldi horretan parte hartzea otu zitzaigun. Txarangako kideengana joan ginen danbor eta txapa jotzen ateratzea zer iruditzen zitzaien galdetzeraz, eta ontzat eman zuten proposamena.

M.M.: Benetan gozatzen dugun danborradako une bakarra banderaren jaitsierakoa izango da.

Gora San Telmo!!

Zumaiako merkatari eta ostalariek
jai zoriontsuak opa dizkizue!!





DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA
BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ
BAZKIDE.

bazkide@ukt.eus
943-81 38 41



Egitaraua

Apirilak 14, ostirala

18:00. Pala egokituko binakako txapelketa, Odieta pilotalekuan.
22:00. Bertso jaialdia izango da Zumaien, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Jone Uria bertsolariekin. Gai jartzailea, berriz, Jon Maia izango da.
22:00. Txosnagunean DJ gaua egingo da Azkura, Magnolia eta Loti disko jartzaileekin.

Apirilak 15, larunbata

11:00. Udal Txistulari Bandaren kalejira.
12:00. San Telmo jaien hasierako txupinazioa, San Telmo ermitaren inguruan. Jarraian, musika eskolako trikitilariak lagunduta, herrira jaitsiera. Ondoren, hamaiketako Itxas Gain elkartearen eskutik. Geroa alaitzen ariko dira trikitilariak eta Bertso Eskolako ikasleak.
12:30. Zumai txarangaren eta trikitilarien kalejira.
13:00. Musika eskolako haurren eskutik, euskal dantzen emanaldia, Ondartxon. Euria eginez gero, Zumaien izango da.
13:45. Zumaiko arku dantza, Kofradiako plazan.
14:30. Gazte bazkaria, herri eskolako frontoian.
17:00. Kuadrillen arteko herri kirolak gaztetxoentzat, Odietan.
18:00. Kantu kalejira Joxe Mendi-

zabalekin, Eusebio Gurrutxaga plazan hasita.
18:30. Elektrotxorongo elektro-txaranga kalejira izango da kalez kale.
21:30. Bassagain Sound System taldearen kontzertua, Torreberri gaztetxean. Ondoren, DJ saioa izango da Julen Lujan, Saizar eta Guija disko jartzaileekin.
22:30. Gazte Eguna ospatuko dute txosna eremuan, eta Mice, Kokein eta Toc taldeek kontzertua eskainiko dute.
22:30. Bide Batez taldeak dantzaldia eskainiko du, Kofradiako plazan.
23:30. Kalea eta gauak gureak dira manifestazioa, txosnagunetik abiatuta.

Apirilak 16, igandea

08:00. Goiz soinua Ustekabe txarangarekin.
11:00etatik 13:30era. Santelmotako XX. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.
11:30. Hamaiketako herriko arrantzale zaharrentzat.
12:00. Sagarbide ikastetxetik irtenda, umeen danborrada.
13:00. Ustekabe txarangaren saioa.
16:30etik 19:00etara. Santelmotako XX. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.
17:00. Buruhandien eta erraldioen kalejira, udaletxetik hasita.
18:00. Karter eta Hoben taldeen kontzertuak, txosnagunean.
18:30. Patata Tropikala konpainiaren Azken eguzkilorea antzezlan, Torreberri gaztetxean.

18:30. Ustekabe txarangaren emanaldia.
22:15. Helduen danborrada, ludo-katetik irtenda. 160 pertsona inguruk parte hartuko dute aurtengo edizioan.
22:30. Joselu Anaiak taldearen dantzaldia, Kofradiako plazan. Gauerdian, Jose Luis Doval arrantzale ohiak bandera igoko du Kofradian. Danborrada amaitutakoan, Joselu Anaiak taldearen dantzaldiak jarraituko du Kofradiako plazan.
00:30. Esther Sound Systemen pintxada, txosnagunean.

Apirilak 17, astelehena

San Telmo eguna

10:15. Prozesioa, San Telmo ermitara.
10:30. Meza Nagusia, San Telmo ermitan. Beheko Plaza abesbatzak parte hartuko du elizkizunean. Itsasoaren aurrean otoitza egingo dute, eta ondoren, parrokiara itzuliko dira. Bertan, San Telmoren erlikia gurtuko dute. Ondoren, hamaiketako izango da.
11:30etik 14:00etara. Umeentzat puzgarriak, Odietan.
12:30. Incansables txaranga, herriko kaleetan zehar.
16:30etik 19:00etara. Umeentzat puzgarriak, Odietan.
17:30. Profesionalen esku pilota partidak, Aitzuri pilotalekuan.
18:00. Plaza dantzak, Kofradian.
18:30. Incansables txarangaren kalejira.
19:30etik 22:30era. Lotxo taldearen dantzaldia, Kofradiako plazan.



Apirilak 21, ostirala

17:00. Rana eta pote txapelketa irekia, Eusebio Gurrutxaga plazan: lehenbizi, 12 eta 16 urte bitartekoek jokatuko dute, eta ondoren, 16 urtetik gorakoek.
19:30. Poteo feminista.
20:00. Bertsofest emanaldia, Oxford aretoan.
21:00. Bertsio Gaua, txosnetan.

Apirilak 22, larunbata

10:00. XXIII. Olagarro Zopa Lehiaketa, Eusebio Gurrutxaga plazan. Ekitaldia alaitzen ariko dira Elustondo anai-arrebak.
11:00. Haurrentzat jolasak, Odieta frontoian.
12:00. Beheko Plaza eta Lezoko Sutargi abesbatzak herriko kaleetan ibiliko dira.
14:00. Txosna eremuan, *Denak etxera!* argazkia.
14:30. Herri bazkaria txosna eremuan. Ordu berean, ikasle eta gazte bazkaria Torreberri gazte-txean. Bazkalostean, kontzertu akustikoa Ktarsia taldearen eskutik.
17:30. Eneko magoaren *Tilin-tilin* ikuskizuna, Kofradiako plazan.
18:00. Urrezko Aizkora Txapelketa.
18:30. Jainekin txarangaren saioa.
19:00. Hamarru elektrotxarangaren kalejira.
22:00etatik 01:00etara. Dj Davilak emanaldia eskainiko du, Kofradiako plazan.
22:00. Animales Muertos, Rodeo, Mehatxuka eta Ukabil taldeen kontzertuak, Torreberri.
22:30. Eire, Olaia Inziarte eta Soinuz Blai taldeen kontzertuak, txosnagunean.

Apirilak 23, igandea

08:00. Goiz soinua Zumai txarangarekin.
11:30. Trikiti kalejira, Kofradiako plazan.
12:00. Zaldi lasterketa, Itzurun hondartzan, eta Iraunkorrek txarangaren kalejira, kalez kale.
17:30. Txikientzat DJ Porruren emanaldia, Eusebio Gurrutxaga plazan.
18:00. Trainerillen estropadak: gizonen XXXVIII. San Telmo saria eta emakumeen IX. San Telmo saria. Gainera, kalejira egingo du Iraunkorrek txarangak.
19:30. Sukar taldearen erromeria, Kofradiako plazan, eta 22:30ean bigarren saioa egingo du taldeak.
00:00. Bandera jaitzieraren ekitaldia, Kofradian, eta santelmoei agurra.



Iritzia

Iñaki Ostoloza Esnal

Zumaiako alkatea

San Telmo festa zoriontsuak guztioi!

Zumaiar agurgarriak, plazer handia da niretzat gure herriko jaien hasieran zuengana jotzea. Urtebetez itxaron dugun unea iritsi da azkenean, eta kaleko giroaz eta ingurukoen konpainiaz gozatzeko aukera izango dugu datozen bi asteburuetan. Egunotan, ekitaldi eta jarduera ugari izango ditugu herrian: kontzertuak, kirol lehiaketak, haurrentzako jarduerak, bertso saioak, herri bazkariak, kalejirak... Gure ondare kulturalaz eta ohiturez gozatzeko aukera ere izango dugu!

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet jaiak antolatzeko lan egiten duten pertsona guztiei, bai udal langileei, baita festen prestaketan denbora eta ahalegina eskaini duten boluntario eta elkarte denei ere. Horiei guztiei esker, askotariko jardueren programazio erakargarriaz gozatuko dugu egunotan.

Santelmoak gozatzeko, dantzatzeko, abesteko, eta finean, festarako tartea dira. Baina azpimarratu nahi dut festa hauek dibertitzeko unea izateaz gain, pertsona guztientzako gunegurua

«**Santelmoak gozatzeko, dantzatzeko, abesteko, eta finean, festarako tartea dira**»

«**Egun hauetan, jendez beteta egongo dira gure kaleak eta plazak, eta denon ardura da ingurunea zaintzea**»

eta atsegina ere izan behar dute. Konpromiso irmoa erakutsi behar dugu edozein eraso matxista saihesteko eta gure jaiak indarkeriarik eta jazarpenik gabeko lekua izan daitezen. Gainera, funtsezkoa da guztiok gure herria txukun mantentzea. Egun hauetan, jendez beteta egongo dira gure kaleak eta plazak, eta denon ardura da ingurunea zaintzea.

Laburbilduz, besteekiko eta gure inguruarekiko arduraz eta errespetuz, jaietz gozatzera animatzen zaituztet. Gozatu dezagun, eta gozarazi dezagun. Eta egin dezagun batera lan, guztiguztiontzako giro atsegina sortzeko. Elkarrekin, festa hauek herri osoarentzat batasun eta zorion une izan daitezela!

San Telmo jai zoriontsuak guztioi!



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



ONDO PASA
SANTELMOAK!!

San Juan auzoa, 16
AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1
ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12
ZUMAIA
943-14 34 43